

2019.11.14 PRENTSA OHARRA

Ruth Estévez, São Pauloko Bienaleko komisarioa, euskal arte garaikidearen testuingurua ezagutzera dator

- Ruth Estévez-en bisita hau ZABAL egitasmoaren lehen urratsa izango da

- Azaroaren 20an hitzaldia emango du Bilboko Arte Ederretako Museoan

Euskal artistei aukera berriak eskaini eta nazioarteko testuinguruarekin loturak sortu eta sendotzeko helburuarekin, ZABAL ekimena jarri du martxan Etxepare Euskal Institutuak.

Ekimenaren xedea da nazioarteko komisario, arte kritikari eta museo zuzendariei euskal artearen testuingurua erakustea. Horretarako Euskal Herrira gonbidatu eta tokiko testuingurua ezagutuko dute, betiere haien interes zehatzen arabera, eta aditu-batzorde baten laguntzaz espreski sorturiko bisita eta topaketa agenda batean oinarrituta.

Proiektua aurrera eramateko tokiko eta nazioarteko arte garaikidearen inguruko proiektuen kudeaketan lan egiten duen Artingeniumen, Lourdes Fernándezek sortutako arte bulegoa, laguntza izango du Institutuak.

Programa honen lehenengo fasea 2019ko azarotik 2020ko ekainera bitarte burutuko da. Fase honetan, guztira nazioarteko zazpi arte-komisario gonbidatuko ditu ZABAL egitasmoak. Horietatik lehena, São Pauloko Bienaleko komisarioetako bat den Ruth Estévez izango da; nazioarte mailan arte bienal ezagunetako eta garrantzitsuenetako bat da São Paulokoa. Azaroaren 18tik 21ra izango da Estévez gure artean, eta Gasteiz, Donostia eta Bilbo bisitatuko ditu.

Bere egonaldiaren baitan, Ruth Estévezek São Pauloko Bienalari buruzko aurkezpen ireki bat egingo du, sortzaile guztiei eta entzulego orokorrari eskainia. Hitzaldia azaroaren 20an, asteazkena, izango da, arratsaldeko 19:00etan, Bilboko Arte Ederretako Museoa.

Biografia

Ruth Estévez (Bilbo, 1977) komisarioa eta idazlea da. Bere komisariotzak antzerkiaren eta ikusizko arteen arteko harreman historikoarekiko interes handia du. Bostoneko Rose Art Museum-eko komisario nagusia da eta 34. São Pauloko Bienalaren komisarioa.artzelonako MACBA zentroan Idiorhythmias, antzezpen, musika, poesia eta testu programako komisarioa ere bada. Los Angeles-eko REDCAT / CalArts-en zuzendari eta komisarioa izan zen 2012tik 2018. REDCAT-en, esate baterako, Javier Téllez, João Maria Gusmão + Pedro Paiva, Allora & Calzadilla, Pedro Barateiro, Quinn Latimer, Hector Zamora eta Andres Jaque artistekin lan egin du, beste batzuen artean. Halaber, erakusketa kolektibo eta programa publikoen komisario ere izan da, *Hotel Theory* (2015) (Sohrab Mohebbi komisarioarekin batera) teoria garaikidea arte garaikidean oinarritua; *Chalk Circles* (2017), (José Luis Blondetekin batera komisariatutako erakusketa), XX. Mendeko ekintza metodologiak aztertzen dituenena. Bestetik, Leon Ferrari artista latinoamerikarraren antzezpen politikoei eskainitako proiektua ere antolatu zuen. REDCAT-en aritu baino lehen, Mexiko Hiriko Carrillo Gil Museoko komisario nagusia izan zen (2007-2012). Horrez gain, LIGA, Space for architecture (2010-), sortu zuen, arkitektura, hirigintza eta arte publikoaren esperimentazioan oinarritutako irabazi asmorik gabeko plataforma.

Gaur egun Mexiko Hiria eta Boston artean bizi da.



Info+

Mikel Lasa
Etxepare Euskal Institutua
Tabakalera / Andre Zigarrogileak plaza, 1
Donostia / San Sebastián
T: 943 023 400 / M: 688 670 217
komunikazioa@etxepare.eus
www.etxepare.eus